

2.

MAILAKO IDATZIZKO AZTERKETA-DEIALDIETAN BILDUTAKO AKATSIK OHIKOENAK

Akatsak zuzentzen

www.ikasbil.net atarian ikus
“Azterketetako akatsik
ohikoenak (1. maila)”
pdf artxiboa, HABE Aldizkariko
eranskinak atalean



Galdera hauen abiapuntu gisa, HABEren 2. mailako azterketaldealdietako hainbat lagin hartu dira. Lagin horietan azaldu diren akatsik errepikatuenak kontuan hartuz, galdera-sorta luzea prestatu dugu HABE aldizkarian, nor bere kasa egin eta zuzentzeko aukera izan dezan. Azken orrialdean, berriz, erantzun-orria aurkituko duzu.



Aukera ezazu esaldi bakoitzerako erantzun zuzena eta beheko koadroetan idatzi.

1.- Egingo ahal du lan hori!

- a.- norbaitek
- b.- norbait
- c.- norbaiti

2.- Zure lagunak esandako lotsagabekeria hutsa iruditu zitzaidan.

- a.- hori
- b.- horrek
- c.- horiek

3.- Oso garestia denez, ez nago prest hori guztia ordaintzeko.

- a.- nik
- b.- ni
- c.- nik neuk

4.- Trumoi-hotsa zela eta, ezin izan nuen lo

- a.- eginik
- b.- egiterik
- c.- egin

5.- Hizketan ari ginela, gauza konturatu nintzen

- a.- batean
- b.- batez
- c.- batera

6.- Badakizu, zure zain nago. Beraz, ahalik eta azkarren deitu!

- a.- deiaren
- b.- deia
- c.- dei

7.- Diru guztia galdu zuen bidean.

- a.- banketxearako
- b.- banketxerako
- c.- banketxera

8.- Esan digutenez, handiagoak hartuko dituzte gure auzoan inor sar ez dadin.

- a.- segurtasun-neurri
- b.- segurtasun-neurriak
- c.- segurtasuna neurriak

9.- Tabernariarengana jo nuenean, garagardoak zeudela esan zidan.

- a.- ordaindutak
- b.- ordaindutakoak
- c.- ordainduta

10.- Hainbeste esan zizkidan, ez ditudala gogoratzen!

- a.- gauza
- b.- gauzak
- c.- gauz

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 8. orrialdera.



11.- Nire arazoa dela eta, arren, lehenbailehen konponbide bat bilatzea dizuet.

- a.- eskatzen
- b.- eskatu
- c.- eskatuko

12.- Azken bolada honetan jaso kexak direla eta, oso kezkatuta nago.

- a.- ditugun
- b.- genituen
- c.- dugun

13.- Hamaika aldiz eskatu nion arren, berak ezezko biribila eman

- a.- zion
- b.- zidan
- c.- nion

14.- Zure lagun horiek liburuak galdu jakin dut.

- a.- dutela
- b.- dituztela
- c.- zaizkiela

15.- Oso gaizki hartu zuen artean eta horrexegatik erabaki dut alde egitea.

- a.- didazue
- b.- zaituztet
- c.- nauzue

16.- Zure arreba ere jakinaren gainean jarri, ez baitzekien ezer gai horri buruz.

- a.- genuen
- b.- genion
- c.- zitzaigun

17.- Ikaragarri arduratzen zure jarrerak, gero eta zakarrago baitzaude nirekin.

- a.- naiz
- b.- nau
- c.- dit

18.- Haurren heziketa da gehien inporta kontua.

- a.- zaiten
- b.- zaidan
- c.- nauen

19.- Jendearen erantzuna behar bezalakoa izan lan egingo dugu denok.

- a.- dadin
- b.- dezan
- c.- daitezen

20.- Gertatutakoaren errudunen bila entzun genuen.

- a.- zenbiltzatela
- b.- zabiltzatela
- c.- zeniezadatela

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 8. orrialdera.

21.- Ekitaldira etorri zen jende oso txikia izan zen.

- a.- zenbakia
- b.- kopurua
- c.- kantitatea

22.- Krisi-egoera benetan da, jende asko baitago langabezian.

- a.- premiazkoa
- b.- larria
- c.- gutxienekoa

23.- amaitu dut ikasturtea, oso luzea izan baita.

- a.- Gaixo
- b.- Gaixotasunez
- c.- Gaixotasunik

24.- Hasieran, ez nion kontu horri, baina orain ikaragarri kezkatzen nau.

- a.- garrantzirik/eman
- b.- inportantzia/ematen
- c.- inportantziarik/ikusten

25.- izugarria dut, aspaldiko laguna topatu baitut.

- a.- Ezusteko/eraman
- b.- Ezusteko/izan
- c.- Ezusteko/ekarri

26.- Dirua irabazi eta galtzen da.

- a.- nekez/erraz
- b.- nekeza/erraza
- c.- zaila/erraza

27.- Adituen jarri zuten gaia, konponbide egokia bila zezaten.

- a.- eskupean
- b.- esku
- c.- eskupekoan

28.- joan nahi dugu sukalderako mahai berri bat erostera.

- a.- Altzari-dendara
- b.- Altzariko dendara
- c.- Altzarietako dendara

29.- asteen joan nintzen medikutara, buruko minez nengoen-eta.

- a.- Lehenengo
- b.- Lehengo
- c.- Lehenagoko

30.- Arazoa konpontzeko irtenbiderik , haurraren gurasoekin hitz egitea izango litzateke.

- a.- arruntena
- b.- eskasena
- c.- errazena

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 8. orrialdera.



- 31.- Nire eskaria ondo hartuko esperantzarekin, agurtzen zaitut.
a.- duzularen
b.- duzulako
c.- duzula
- 32.- Zuri ere horrelako zerbait gertatzen ez arte, ez duzu jakingo zein gogorra den.
a.- zaizun
b.- zaizu
c.- dizuten
- 33.- Azkenean, ordaindu behar izan nituen.
a.- nireak ez ziren gastu batzuk
b.- gastu batzuk nireak ez zirela
c.- gastu batzuek nireak ez zirenak
- 34.- Azkenaldi honetan, normalean baino iritsi zara berandu lanera.
a.- aldiz gehiago
b.- gehiagotan
c.- gehiago alditan
- 35.- Euskara-azterketan Josuk kopiatu egin konturatu nintzen.
a.- ninduela
b.- zidan
c.- zidala
- 36.- Gure nagusi berria Mikel izango ez dakigu oraindik.
a.- dela
b.- den
c.- dena
- 37.- Jakin nahiko nuke afaltzera etortzea ala ez.
a.- erabakita badaukazue
b.- erabakita daukazuen
c.- daukazuen erabakita
- 38.- Gertatu azaltzeko ordu erdia beharko dut gutxienez.
a.- zitzaidana
b.- zaidanez
c.- zitzaidanez
- 39.- Berandu zen eta nola bueltatzeko modurik ez , lagun bati deitu nion, bila etortzeko.
a.- baineukan
b.- nuen
c.- nuenez
- 40.- Nire erabakiaren gainean zerbait gustatuko litzaidake.
a.- esaten badidazue
b.- esatea
c.- esaterik

31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 8. orrialdera.

41.- Zein da zuzena?

- a.- Familia babetzeko garaian adore handia erakutsi zuen
- b.- Familia babesteko garaian adore haundia erakutsi zuen
- c.- Familia babesteko garaian adore handia erakutsi zuen

42.- Zein da zuzena?

- a.- Pasaden astean
- b.- Pasa den astean
- c.- Bi aukerak dira zuzenak

43.- konturatu zen ez zela Josunerentzat, Imanolentzat baizik.

- a.- Bidalduta gero
- b.- Biali ta gero
- c.- Bidali eta gero

44.- Nire ustez, bikote hori banatzeko izan.

- a.- diru ezan/arrazoi nagusia
- b.- dirua ez zen/arrazaia nagusia
- c.- dirua ez zen/arrazoi nagusia

45.- Horrela jarraitzen badugu, gure arteko

- a.- tratuak ahutziko ditut
- b.- tratuak hautsiko ditut
- c.- tratuak autsiko ditut

46.- Zein da zuzena?

- a.- Eun da ogeita amar
- b.- Ehun eta hogeitamar
- c.- Ehun eta hogeita hamar

47.- Zein da gutun bati bukaera emateko egokia?

- a.- gehiagorik ez esaterako asmoz
- b.- besterik esan behar ez dudanez gero
- c.- gehiagorik ez esatearren

48.- Eskutitz formal baten bukaeran, agurtzeko:

- a.- agur gozo bat
- b.- agurtzen naiz
- c.- agurtzen zaitut

49.- Zein da zuzena?

- a.- Zure anaia irizten denean, ahalik eta askarren aterako gara
- b.- Zure anaia iristen denean, ahalik eta azkarren aterako gara
- c.- Zure anaia iristen denean, harik eta azkarren aterako gara

50.-, datorren astean ezkondu egingo naiz.

- a.- Badakizunez
- b.- Dakizunez
- c.- Badakizunez gero

41	42	43	44	45	46	47	48	49	50
----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 8. orrialdera.



51.- Arduradunek beren bezeroei gertakari honen berri eman beharko

- a.- lizkieke
- b.- liekete
- c.- lizkiekete

52.- Beldur handia ematen ondorioek.

- a.- didate
- b.- dizkit
- c.- dizkidate

53.- Zure galdera guztiei erantzuna aurkitu

- a.- nien
- b.- nituen
- c.- nizkizun

54.- Badakizu, lagunen artean honelako gauzak sarri gerta

- a.- daiteke
- b.- daitezke
- c.- dezakete

55.- Gertatu zenari nik ez garrantzi handirik eman, baina Josebak bai.

- a.- nion
- b.- nuen
- c.- nizkien

56.- Lasai egon esan zidaten.

- a.- nadila
- b.- nendila
- c.- nekizkien

57.- jakin nahi izan nuen, baina ez zidan ezer kontatu.

- a.- Zer gertatuko den
- b.- Zer gertatuko zen
- c.- Zer gertatu zen

58.- Konponbidea aurkitzen lagunduko al niri?

- a.- dizkidazue
- b.- didazue
- c.- dizuet

59.- Datuak eman hitz egin nuen, zuzen zitzan.

- a.- zidanarekin
- b.- zizkidanarekin
- c.- nizkionarekin

60.- Nik ordainagiriak ez dira nahikoak gastua zuritzeko.

- a.- daukadan
- b.- dauzkadan
- c.- dudan

51	52	53	54	55	56	57	58	59	60
----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 8. orrialdera.



erantzun-orria

1 a	2 a	3 b	4 c	5 b	6 a	7 b	8 a	9 c	10 a
11 a	12 a	13 b	14 b	15 c	16 a	17 b	18 b	19 a	20 a
21 b	22 b	23 a	24 a	25 b	26 a	27 b	28 a	29 b	30 c
31 b	32 a	33 a	34 b	35 c	36 b	37 b	38 a	39 b	40 b
41 c	42 b	43 c	44 c	45 b	46 c	47 b	48 c	49 b	50 b
51 b	52 a	53 a	54 b	55 a	56 b	57 c	58 b	59 b	60 b